




Eskolako Agenda 21

Tolosa 2011/12



Biodibertsitatea

Biodibertsitatearen galeraren arrazoietakobat espezie arrotz inbaditzaileak dira

Tolosako ikasleek, Tolosaldeko hainbat ikaslerekin batera, BIODIBERTSITATEA landu dute ikasturte honetan, Udalak eta eskolak batera bultzatzen duten Eskolako Agenda 21 programaren barnean. Hau guztia suspertzen eta gauzatzen Tolosako ingurumen zentroari esker bermatu da (TIZ).

Oso gai estrategikoa da; izan ere, bizidun batzuen egoera ez da oso baikorra. Espezieak desagertzen ari dira, azpiegitura erraldoiak ekosistema ugari suntsitzen, eta aldaketa klimatikoaren mehatxuari aurre egitea ez da erraza.

Hemen Euskal Herrian, eta Tolosaldean bereziki, aipatutako arazo horietaz gain, gure baserriarrek eta artzainek modelatutako paisaia ederrak ere arriskuan daude; baita ibai ertz eta hezeguneak ere.

Biodibertsitatearen galeraren arrazoietakobat espezie arrotz inbaditzaileak dira. Espezie hauek beste lurralde batetik heldu eta bertan azkar hedatzen diren espezieak dira, eta ekosistemen egitura nahiz funtzionamendua aldatu egiten dute eta kalte egin ekologiari, sozio-ekonomiari eta osasunari. Hori dela eta, Tolosako ikasle batzuk Ori ibaiaren hertzeetan dauden landare inbaditzaileen azterketa egin dute. Tximeleten zuhaixka (*Buddleja davidii*) eta banbu japoniarra (*Fallopia japonica*) izan dira gehien aurkitu dituztenak ibai osoan zehar. Sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*), kainabera (*Arundo donax L.*) eta panpako plumeroa (*Cortadeira selloana*) ere topatu dituzte.

Egoerak horrela jarraitzen badu, gero eta gehiago hedatuko dira bertako biodibertsitatea galaraziz. Oso zaila da inba-

ditzaile hauek desagerraraztea, baina beren hedapena ekiditeko neurriak hartu behar direla argi eta garbi dago. Horregatik, ikasleek hainbat proposamen luzatu dizkiote Udalari, hala nola:

- Ibai ertzean daudenez, hauen aurka produktu kimikoak erabiltzea kaltegarria izan liteke. Beraz, komenigarriena hauek sustraietatik kentzea izango litzateke, nahiz eta lan neketsu eta zaila izan sustrai sendoak dituztelako.
- Komenigarria litzateke, landare hauek loratu aurretik moztea, ugaltu ez daitezen.
- Hitzaldien bitartez herritarrek jakinaren gainean jarri beharko liriteke, arazoa uste baino larriagoa baita, eta jende gutxi du horren berri.
- Inbaditzaileek zabaltzeko oztopoak izan ditzaten, bertako landareak landatzea.
- Ibaiak garbitzeko kanpainak egitea.
- Landare inbaditzaile hauek suntsitzeko lanak, gaian adituak diren pertsonak egitea proposatuko genuke. Akats txiki bat eginez gero, inbaditzaileaz gain, bertako landareak eta animaliak kaltetu daitezke eta.

Guk herritarrok ere badaukagu zereginik: prebenitzeko kanpainetan eta landare inbaditzaileen aurkako kanpainetan parte hartu, adibidez, eta espezie hauek baztertu bertakoak aukeratuz.

Sasiakazia



Panpako plumeroa



Tximeleten zuhaixka



Banbu japoniarra



Landare arrotz hauek inbaditu egiten dituzte gure eremu naturalak bertako landareei lekua kenduz.

Aurten BIODIBERTSITATEA izan da landu duten gaia Tolosako Hirukideko (Jesuitinak eta Eskolapioak), Laskorain ikastolako, Samaniego ikastetxe publikoko, Orixe institutoko, eta Tolosaldeko lanbide eskolako 4016 ikaslek.

Baina ikasleak protagonista nagusiak badira ere, ez dira ahaztu behar irakasleak, eskolako beste langileak eta gurasoak.

Buruturiko lana

Biodibertsitatearen garrantzia ezagutu eta herriaren diagnostikoa egiteko buruturiko lanak hauek izan dira:

- **Haur Hezkuntzakoek** ikusi dute bizitzeko eta jolasteko egokiagoak direla biodibertsitate handiko lekuak.

Gabonak eta kontsumoak: Txotxongilo saio honetako aurtengo pertsonaia Sigismundo izan zen, eta Tolosaldean zehar bidaiatzen ari zela, bertako biodibertsitatea landu genuen: animaliak, landareak eta paisaia. Honetaz gain, bertako kultura, hizkuntza eta bizi-modua ere landu ziren, alderdi horiek zaintzearen garrantzia azpimarratuz. Aurten bi tailer burutu dira: usain tailerra eta txotxongiloen eskulan tailerra.



Ondo pasatzeaz gain, asko ikasi dugu!

- **LH-ko 1 eta 2. mailakoak** herriko parkeetara atera dira ingurunea ezagutzera.



Bizia ugari lur zati txiki batean!

- **LH-ko 3. eta 4. mailakoek** habitat desberdinak ezagutu dituzte, hauen egoera aztertu, eta naturak eskaintzen dizkigun ondasun eta zerbitzuak baloratzen ikasi dute; natura irudi polit bat baino gehiago da eta!!



Ibaia aztertzen ikasten dugu.

- **LH-ko 5. eta .6 mailakoek** paisaia "irakurtzen" ikasi dute eta aniztasunaren garrantzia aztertu dute, herritarrei galderak eginez.



Paisaia liburu bat izango balitz irakurtzen dugu.

- **DBH 1 eta 2. mailakoek** inguruko animalia eta landareak ezagutu eta horietako batzuk inbaditzaileak direla jakin dute.

- **DBH 3. eta 4. mailakoek** herri barruko biodibertsitate maila ezagutzeko berdeguneak aztertu, eta herritarren iritziak inkesta batean bildu dituzte.

- **Batxilergo eta moduloetakoek**, Oria ibaia aztertuta, espezie inbaditzaileen kokaleku eta ezaugarriak biltzen dituen txostena prestatu dute.



Ikasleen foroa

Maiatzaren 3an, ikastetxeen ordezkariak bildu ziren, egindako lanaren emaitzak aztertu, eta udal batzarrean aurkezteko lan bateratu bat prestatzeko. Bilkura honetan Tolosako biodibertsitatearen egoera hobetzeko hartu dituzten konpromisoak eta udal gobernari aurkeztutako proposamen garrantzitsuenak aukeratu ziren.

tsitatearen egoera hobetzeko hartu dituzten konpromisoak eta udal gobernari aurkeztutako proposamen garrantzitsuenak aukeratu ziren.



Ikasle foroa maiatzaren 3an egin genuen musika eskolan.



Diagnostikoaren emaitzak

Lan guztiak egin ondoren, ondorio hauek atera dituzte:

- Egindako irteeretan zaborra aurkitu dugu.
- Gehiago pentsatu beharko genuke inguruan dugun biodibertsitateaz eta honen garrantziaz.



Gure paisai kulturala da baso-baratza-larrea...

- Herria, jende mota desberdinei irekia eta hartzeko prest dago.
- Ibai ertzean landare inbaditzaile asko dago.
- Gazteok zuhaitz eta landareak ez ditugu ezagutzen.

- Animalia exotikoak maskotatzat erosi, eta etxean zaintzeaz aspertutakoan pertsona batzuk askatu egiten dituzte.

Hauek dira biodibertsitatea zaintzeko hartu dituzten konpromisoak:

- Zuhaitz, hosto eta loreak ez ditugu puskatuko.
- Berdeguneak ondo zainduko ditugu (landareak, animaliak, zaborra,...).
- Pertsona guztiak desberdinak gara, denak onartu, ezagutu, errespetatu eta lagundu egingo ditugu.
- Zaborra behar den tokian utzi eta inguruak txukun mantenduko ditugu.

Udal ordezkariari ondorengo proposamenak egin dizkiete:

- Erabakiak hartzeko herriari entzutea, elkarlana eta bizikidetza sustatu eta Udalak duen integrazio plana ezagutaraztea.
- Azpiegiturak egin aurretik ondo pentsatzea.
- Ibaia garbitu eta ondo mantentzea.
- Herriko berdeguneetako landareak zaindu eta beraien izenak jartzea.
- Zuhaitz mozketak kontrolatu eta bertako espezieak landatzea.
- Berdeguneetan zakarrontzi gehiago jartzea.

Udal batzarra

Maiatzaren 16an Tolosako ikasleen ordezkariak udal agintariari, Ibai (alkatea), Hasier (zinegotzia) eta Iñigori (teknikaria), herri mailan egindako lanaren aurkezpena egin zieten.

Udal Batzorde honetan ateratako ondorioak, beraien hartuko dituzten konpromisoak eta Udalari egiten dizkieten proposamenak eraman zituzten. Ikasleek aprobetxatu zuten aukera hori eskerrak emateko lan hau egiten lagundu dieten guztiei. Proiektuaren helburua da, denon artean herriko eta inguruko egoera hobetzea.

Ordezkariak gogoz entzun zituzten ikasleen ekarpenak eta orain beraien txanda da, proposamen hauei erantzuna emanez.



Herritar txikiak alkatea eta zinegotzarekin.

Biodibertsitatea familia eta lagun giroan



Zuek, gurasoak, nola har dezakezue parte proiektuan?

Zuen partaidetza eta inplikazioa proiektuan oso garrantzitsua da eta era desberdinetan har dezakezue parte:

- Diagnostikoa egiterakoan: zenbait kasutan, zuen seme-alabek, diagnostikoa egiteko fitxak bete ahal izateko, etxeko laguntza beharko dute.
- EA21eko proiektuaren inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzen.
- Egiten diren foroetan parte hartzen (eskolen arteko foroa, udal foroa,..)
- Irakasleei galdetu, gogoz hartuko dituzte zuen eskaintzak.

Oporrak bueltan daudela biodibertsitatearekin lotutako plan asko proposatu ditzakezue familiarekin edo lagunekin egiteko:

- Gipuzkoako Eredu Natural bat bisitatzea: Uzturre, Ermio-Gatzume,

Aralar, Aizkorri, Aiako Harria, Pagoeta, Arno, Garate, Txingudi, Inurritza, Leitzarain,... Aukera handia dago etxetik urrutira joan gabe!

- Mendi ibilaldi bat egin, ondo pasatzeaz gain, kirola egingo dugu!
- Herriko azokara gerturatu bertako produktuak erostera, eta ahal bada ekologikoak.
- Baserri batera bisita antolatu - www.baserriatureskolabizia.com
- Seme-alabekin animaliei buruzko ikuskizunak aukeratu, liburuak,...
- Ez bakarrik beraiek, guk ere ondo pasako dugu eta gauza berriak ikasiko ditugu!

Hauk gure proposamenak izan dira, baina zuei ere bestelako ekintzak bururatuko zaizkizuela ziur gaude.

Motzean

EA21: KONPROMISOAK ETA PROPOSAMENAK BERRIKUSTEN

Dagoeneko 3 urte pasa dira Tolosako EA21 proiektuan aurretik landutakoaren errepasoa egin zenetik. Aurten azken hiru ikasturteetan egindako lanaren hausnarketa egitea egokitu da. Otsailaren 15ean ikastetxeetako ordezkariak alkate eta ingurumen zinegotziarekin bildu ziren ekitate gabezia, ura eta elikadura gaien inguruan emandako pausuen jarraipena egiteko. Besteak beste, etorkinen integrazioa, ibaiaren egoera edo bidegorri sareaz hitz egin zen.

EA21 irakasle ordezkarien taldea

Irakasleen lana eta inplikazioa oso garrantzitsuak dira EA21 proiektua aurrera jarraitu ahal izateko. Irakasleen ordezkariak gela barruko eguneroko lana egiteaz gain, koordinazio bilerak, prestakuntza saioak eta eskola komunitatearen inplikazioa lortzen lan handia egiten dute, eskerrik asko guztiei!



Ikasleek bezala irakasleek ere jolasen bidez ikasten dute.

Tolosaldeko IV. Topaketa

EA21 hezkuntza proiektu honetan, Tolosaldeko 11 herritako 20 ikastetxeren inplikazioa lortu da, eta gaur egun 7.150 ikaslek, 200 baino gehiago irakaslek eta guraso askok hartzen dute parte.

Tolosako Musika Eskolan, ekainaren 13an, Aste berdean murgilduta, Tolosaldeko eskoletako ordezkariak biodibertsitatea gaiaren inguruan

arrituko dira jarduera honetan.

Herrien arteko harremanak sendotzea, elkar ezagutzea eta Tolosaldearen ikuspuntua izatea dira topaketa honen helburu nagusienak.



III. Topaketa

Río+20

2012ko ekainean, Río+20 Goi Bilera egingo da berriro ere Brasilen, 1992ko Lurreko Goi Bilera ospetsu hura egin zenetik 20 urtera. Lurreko Goi Bilera hartan garapen iraunkorraren oinarriak ezarri zituzten nazio desberdinetako ordezkariak. Aurtengoa oso bilera garrantzitsua da giza garapen iraunkorra lortzeko: 20 urte hauetan egindako aurrerapenak aztertuko dituzte, eta erronka berriei nola heldu erabakiko dute.

Tolosaldeak modu aktiboan parte hartu nahi du eskualdeko gazteen ahotsen bitartez. Horretarako, lehenengo bilera hartan Severn Suzuki 12 urteko neska kanadarrak emandako diskurtsoan oinarritutako bideo bat grabatuko dute, urte hauetan emandako pausua nahikoak izan diren ala ez hausnartzeko. Izan ere, EA21 proiektuaren bitartez nahi dugun etorkizuna lortzeko ardura eta aukera dauzkagula uste baitugu.

Denon artean Tolosa justuagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan!!!

Tienes un resumen en castellano de este boletín, en el siguiente enlace: <http://www.tolosaingurumena.net/tiz.php?idioma=eu>